



GAIZKA IROZ
JARRIRIK ETA KANTUZ. Jendea auzitegiko atarian metatu zen, jarriarik; gasez inguraturik izanik ere, mugitu gabe. Ordu erdi luze batez egon ziren poliziek ostikoka eta arrastaka kanpora bidali bitartean.

Kanpoan, Polizia atarian metaturik zegoen jendea bultzatzen hasi zen. Jendeek «euskara bai, errepresiorik ez» oihukatuz ihardetsi zioten Poliziari; eta hark negar gasa erabili zuen sarrera nagusian metatutakoekin kontra. Jendeak mugitu gabe atxiki zuen eskaileretan «Euskal Herrian euskaraz» oihukatuz eta eskuak altxatuz, bake giroan zetoze adierazteko.

Txomin Peillen euskaltzaina hatsanturik atera zuten lau pertsonaren artean. Erietxera eramane zuten, bihotz arazoak artatzeko. «Adierazgarria da euskaltzain bat anbulantzian atera beharra», zioten bertan bildutakoek. Poliziak orduan igorri zuten gasa barnean zirenei.

Sarrera nagusian, ehun bat lagun gutxienez, lurrean metan jarri ziren, besoetarik eta zangoetarik elkarri loturik. Poliziak ez zekien zer egin. «Ez gasik bota!», zioten polizia batzuek. Baina gasa bazegoen, eta jendeak tinko jarraitu zuen, kantuz eta oihuka. Amets Arzallusek bertso pare bat bota zuen.

Demoek epailearekin negoziatu nahi zuten. Euskaraz hitz egitea onartzen bazien eta bost lekuko mintzatzen uzten bazituen, protesta geldituko zutela adierazi zuten. Epaileak ez zuen ezer entzun nahi izan. Polizia bortizki hasi zen jendearen kanporatzen, ostikoka, besoak, gerrak eta belak zantpatuz.

Gazte bati sudurra hautsi zioten eta, zafaldiaren ondorioz, konortea galdu zuen. Hala ere, Poliziak gasa jaurtiki zion berriz aurpegira. Laguntzera joan zen jendea ere bortizki zantpatu zuten Poliziak, soinekoetatik ha-

rrapatuz, buruz behera eskailetatik botatzeko eta burua ostikatuz. Jendeak gorputzekin matalas edo koltxo bat osatu zuen, barnetik kanpora airean botatzen zituztenak babesteko.

Kanpoaldean, demoek salaketa ezar zezatela eskatu zieten kaltetuei. Medikuek batek ikus zitzan, kaltetuak lerroan jarri zirelarik, Polizia berriz oldartu zen. Zazpi-zortzi jazarraldi izan ziren orotara. 15 pertsona bederen izan ziren zauriturik, buruko traumatismoak eta bekain hautsiak, saihetsetako mina pairatuz, kontatu gabe begi erredu-rengatik sorospen zerbitzuetara edo erietxera joan zirenak. Panpi Dirassar ABko bozemai-leak prentsari ematen ari zitzaizkion adierazpenak bertan behera utzi behar izan zituen goitika egiteko. Bi lagun ere atxilotu zituzten, komisariara eramateko.

Prokuradorearen aldeko epaia

Epaiketa mozturik zegoen istiluak zeuden bitartean. Poliziak ez zuen gehiago inor uzten auzitegian sartzen. Auzia berriz hasi zelarik, prokuradoreak «sasialdarrikapenak» ez dutela «lege urratzea baimentzen» adierazi zuen. Doihenart, Leizeaga eta Lucasen aurka 750 euroko isun bana eskatu zuen. Torreren aurka, 15 euroko ehun isun egun eskatu zituen. Epaileak eskaera horiek jarraitu zituen. Torreren kasuan, ehun egunez, egun bakoitzean 15 euro ordaindu beharko ditu; bertzela, preso sar dezakete. Horrez gain, lauren artean SNCFri 719,99 euro ordaindu behar dizkiote.

Elkarretaratzera deitu dute kazetariak, auzia eta euskararen egoera salatzeko

E.B. | BAIONA

Poliziak hasieratik zeuden urduri eta bortitz. Zenbait kazetarirekin ere nahiko bortitz agertu ziren, besteak beste, atorraren barnealdean zegoen kamiseta miazteraino, eta zenbait kazetariri «ez zara luzaz kazetari izango» gisako mehatxuak botatzeko. Halaber, epaigela ia hutsik zegoenean, gelditzen ziren kazetariak banan-banan lasai ateratzeko eskatzean, haietariko bat bortizki hartu eta bultzaka eramane nahi izan zuten, nahiz eta argi zuten kazetaria zela.

Gertakari horiek direla eta, «euskal kazetariak» agiri bat atera dute, «Poliziak oro har izan duen jarrera bortitza eta probokatzailea eta, bereziki, lankide batzuei

eman tratua» salatzen. Halaber, kazetariak ez dute «ulertzen demoei begira dagoen jazarraldi hori, ez eta auzian zehar gure hizkuntza den euskarari erakutsi zaion etengabeko mespretxu argi eta garbia ere».

Agiria izenpetu duten kazetarien ustez, «demoek eskatzen dutenak zilegitasun osoa du, bai sozialki eta bai moraliki; gainera, hautesien eta jendartearen babesaren eskakizunak bete daitezkeen egiten dituzte ekintza baketsuak». Kazetariak «zerbitzu publikoak, eta SNCFk ere bai, euskarari zor zaizkion eskubideak errespetatu» behar dituztela diote.

Elkarretaratzea antolatuta dute heldu den larunbaterako, 11:00etan, Baionako tren geltokiaren aurrean, eta euskaltzale guztiei deia zabaldu.

DUINTASUN
EGUNA

BI HAR

DENOK KALERA!

DEMOKRAZIA
EUSKAL
HERRIArentzat

ANUZTEAK
MOBILIZAZIOA